



EBAZPENA, 2024ko azaroaren 18koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2024-2025 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiaren ebazpen-proposamena ematen du.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak, 2024ko ekainaren 25eko aginduaren bitartez (2024ko uztailaren 11ko EHAA), Ikasiker lankidetzaren beken deialdia egin zuen, 2024-2025 ikasturterako unibertsitate ikasleentzat.

Agindu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, Ikasiker lankidetzaren beken deialdiari dagokion ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Jakinarazi, 2024-2025 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko ebazpen proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak, III. eranskinean ordezkoen zerrenda proposamena osatzen duten eskaerak eta IV eranskinak eskaera guztiak biltzen dituen zerrenda bat du, ikerketa talde edo zentroaren arabera multzokatuak.

Bigarren.- 10 egun baliouduneko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoetxea

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria